

MENDI IBILI BAT

Mendiko umea naiz
mendia dut maite
ez nintzake biziko
menditik aparte.
Eta orain kalean
bizi banai ere,
ez naiz bizi mendira
begiratu gabe.

Euskal abesti zaharra.

Martxoak, 19.

Igandea.

Zeru urdinagorik ezin lezake ikusi.

Goiz-erdian naiz atera etxetik mendiruntz.

Bakarrik noa, bakarrik edo nire pentsamenduekin.

Arakistaingo plaza ertzetik, auto-bidez, beldurrez noiz gainean sentituko hor dabiltzan mila berebil-etako bateren kolpea.

Arzabal hauzoa, eta beriala, Kamino zaharra. Azke naiz.

Banua bide zabalean, Goikoetxe baserria gainean ezker aldetik, gure herriko izena duan ibaia azpian, eskuira, eta hemen Mailoate, «pobreen haitza» alboan duela.

¡¡Mailoate, lehen izan zero ttikia, dena ondatu haute!!

Txori lekua, Milapros baserriko keixa, piku eta arantz-loreak jaten zituzten txoriak, beren amorioak egitera etortzen ziran lekua. Guk, lagunok, arkume-erre jan bat egiteko aukeratu genuan lekua.

¡¡Mailoate, Autopistak apurtu haute!! Utikan.

Goruntz joan naiz deabrukeri batzuek esan ondoren.

Elkorriate, Sasiolatik Lasturrera-ko bideak zabaltzen dituan mendi-atea.

Begira diot erlojoari. Goiz da. Noala goruntz Lasturrera joan gabe.

Gainean Mantarregi basetxea. Zelaiak, nahiko lore, eguzkia, argia. Hemen Udaberria.

Udaberri, dakik ez detala txapelik, eta beraz, ez nezakeala kendu nire agur errespetagarria ezkeintzeko. Baina makurtu diat burua, ikusi nauk, eta dakik gizonki gelditu naizela.

Ongi etorri, Udaberri, denon pozgarri aizen hori, urte askoan lagun izango bagina...

Banua beruntz lehen gora etorri nintzan bideetan.

Elkorriate berriz, Lasturko arana, bailera. Auto-bideak. Kortaberri, Arrasketa eta azkenez, Arruan.

Gero, basoa, sastraka, arantza, lokatza, txoriak alderdi denetan. Zozo, birigarro, txantxangorri, denak nire eta nire pentsamenduen lagun.

Ez baita eiztaririk eta txoriak mendi bideetan dabiltzan jendeari beren agurra ematen dakie.

Txori hiltzaile dabiltzan eiztariak. Utikan!!

Baso koxkor bat pasatu ondoren, Leizaola dorrea, euskal-etxe zabal ikusgarria, zelaiak aurrean, alboan Lastur-erreka milaka urteetako eresi soinuekin. Zerua.

Beriala, Lasturko plazatxoa.

Nikolas Donea, eleizako aldarán.

Alboan, Paloneko taberna.

Errota-ko klin, klin, eten gabea.

Bidez-bide joan nintzan aurreruntz Ziaran baserriraino.

Nire lagun baten omenaldia zela, eta bertan bazkaldu nuan.

IÑAKI LETE.

Deba, Martxoa 1973.